

## Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

### INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

IRAGARPENA, Cantera Nafarrondo, S.A.-k eskaturik hasitako desjabetzeko tramitean sartutako eskubide eta ondasunen zerrenda jendaurrean ikusgai jartzeko dena. Orozko udalerrian (Bizkaia) dagoen Peña Nafarrondo izeneko meatokiko zerbitzuek, instalazioek eta jarduerak eragiten dieten eskubi-deak eta ondasunak premiaz okupatu beharrekoak direla deklaratzeko hasi zen aipatu tramitea. 14089

### ARABAKO FORU ALDUNDIA

IRAGARPENA, 1999ko ekainaren 25eko 426 Foru Aginduarena. Legutiano 3 Bizitegi-Zonaren (L3BZ) eraikuntzako Ordenantziari eta Elizoste eremuaren ordenazioari dagokienez, Legutiano Udalerriaren ordezkoko arauak aldatzeko espedienteari buruzkoa da aipatu agindua. 14090

IRAGARPENA, 1999ko ekainaren 30eko 452 Foru Aginduarena. Lagrango Hirigune Historikoa Zaharberritzeko Plan Berezia Berraztertze espedienteari buruzkoa da aipatu agindua. 14091

## Xedapen Orokorrak

### NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

#### Zk-3500

309/1999 DEKRETUA, uztailaren 27koa, zeinaren bitartez aldatzen baita Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duen dekretua.

Maiatzaren 11ko 218/1999 Dekretuaren bidez, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organiko eta funtzional berria finkatu zen.

Aipaturiko dekretuaren aurreko Sailaren egiturari, eta Europako Batasuneko arauen eremuan soilik, Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzaren eta Garapen eta Koordinazioaren Zuzendaritzaren artean banatu ziren, hurrenez hurren, Erakunde Ordaintzailearen barne-auditoretzako eta kontabilitateko eginkizunak. Izan ere, erakunde hori irailaren 26ko 425/1995 Dekretuaren bidez sortu zen, nekazaritza-politika komunak eragindako gastuak ordaintzeko.

## Otros Anuncios Oficiales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

ANUNCIO por el que se somete a información pública la relación de bienes y derechos incluidos en el trámite expropiatorio iniciado a solicitud de Cantera Nafarrondo, S.A. en orden a la declaración de urgente ocupación de los bienes y derechos afectados por las labores, instalaciones y servicios de la explotación minera denominada Peña Nafarrondo, sita en el término municipal de Orozko (Bizkaia). 14089

### DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

ANUNCIO de la Orden Foral núm. 426 de 25 de junio de 1999, en relación con el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias del municipio de Legutiano, referente a la ordenación del ámbito de Elizoste y Ordenanza de edificación de la Zona Residencial 3 Legutiano - R3L. 14090

ANUNCIO de la Orden Foral núm. 452 de 30 de junio de 1999, en relación con el expediente de Revisión del Plan especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Lagran. 14091

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

#### Nº-3500

DECRETO 309/1999, de 27 de julio, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura y Pesca.

Mediante el Decreto 218/1999, de 11 de mayo, se estableció la nueva estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura y Pesca.

En la estructura departamental anterior al mencionado Decreto, se distribuían entre las Direcciones de Servicios Generales y de Desarrollo y Coordinación, respectivamente, y en el ámbito exclusivo de la normativa comunitaria, las funciones de auditoría interna y de contabilidad del Organismo Pagador constituido por Decreto 425/1995, de 26 de septiembre, para la realización de los gastos correspondientes a la Política Agrícola Común.

Alde batetik, premiazkoa da aipaturiko bi eginkizunak Nekazaritza eta Arrantza Saileko zuzendaritza ezberdinetan banatzea, eginkizun horiek bateraezinak baitira atal organiko berberaren mende, eta, bestetik, komenigarria da kontabilitateko eginkizunak Saileko kudeaketa ekonomikoko lan-taldeari esleitzea. Hortaz, beharrezkoa da eginkizun horiek berrantolatzea eta onetsi berri den egituraren ezarritako atal organiko berrietan kokatzea, eta beharrezkoa da egitura berria ezarri duen dekretua aldatzea.

Ondorioz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, alde aurretik Lehendakariak onartu, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko uztailaren 27an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

**Lehenengo artikulua.**– Nekazaritza eta Arrantza Sailearen egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duen dekretuan, hau da, maiatzaren 11ko 218/1999 Dekretuan, 4. artikulua 2. paragrafoko i) idatz-zatia kendu, eta haren ordez i) eta j) idatz-zati berriak jarri dira. Hona hemen idatz-zati berriak:

«i) Europako Batasunaren nekazaritza-politika komunak eragindako gastuen Erakunde Ordaintzailearen barne-auditoretza egitea, arau komunitarioen eremuaren barruan soilik.

j) Aurreko idatz-zatietan aipaturiko egitekoekin loturik, zuzendaritza honi esleitzen diren beste egiteko guztiak.»

**Bigarren artikulua.**– Nekazaritza eta Arrantza Sailearen egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duen dekretuan, hau da, maiatzaren 11ko 218/1999 Dekretuan, beste modu batera idatzi da 5. artikulua e) idatz-zatia, eta honela geratu da:

«e) Europako Batasunaren nekazaritza-politika komunak eragindako gastuen Erakunde Ordaintzailearen kontabilitateko lanak egitea, arau komunitarioen eremuaren barruan soilik.»

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko uztailaren 27an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,

IÑAKI GERENABARRENA MARTINEZ DE LAHIDALGA.

Como quiera que, por un lado, es necesaria la separación, por motivos de incompatibilidad en la dependencia orgánica, de las dos funciones citadas entre diferentes Direcciones del Departamento de Agricultura y Pesca, y, por otro, es conveniente integrar la función contable en el equipo de gestión económica departamental por mor de la necesaria eficacia en su desarrollo, se hace en todo caso preciso reubicar las funciones en cuestión residenciándolas en las nuevas unidades orgánicas establecidas en la recién aprobada estructura, cuyo Decreto es necesario modificar.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 27 de julio de 1999,

#### DISPONGO:

**Artículo primero.**– Se sustituye el anterior apartado i) por los nuevos apartados i) y j) en el párrafo 2 del artículo 4 del Decreto 218/1999, de 11 de mayo, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura y Pesca, que quedan redactados como sigue:

«i) Realizar la auditoría interna del Organismo Pagador de los gastos de la Política Agrícola Común de la Unión Europea, en el ámbito exclusivo de la normativa comunitaria.

j) Cualesquiera otras funciones que le fueran encomendadas en relación con las señaladas en los apartados anteriores.»

**Artículo segundo.**– Se da nueva redacción al apartado e) del artículo 5 del Decreto 218/1999, de 11 de mayo, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura y Pesca, que queda redactado como sigue:

«e) Llevar a cabo la contabilidad del Organismo Pagador de los gastos de la Política Agrícola Común de la Unión Europea, en el ámbito exclusivo de la normativa comunitaria.»

#### DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de julio de 1999.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,

IÑAKI GERENABARRENA MARTINEZ DE LAHIDALGA.